BOLETIN INFORMATIVO | ENERO 2017

GEROA BAI

Altsasu

GUZTION ALTSASU

# Futura escuela infantil municipal



Estamos ante el hito más importante en este primer periodo de la legislatura. La construcción del edificio en el que de forma definitiva quede ubicada la Escuela Infantil municipal Txirinbulo ha sido fruto de un intenso trabajo llevado a cabo desde la discreción y la prudencia y, por supuesto, desde la ilusión. Con la mirada puesta en el pasado y en el futuro de nuestra Escuela Infantil.

El incendio que calcinó las instalaciones modulares aquel jueves 3 de septiembre de 2015 marcó un punto de inflexión y desde Geroa Bai tuvimos claro que había llegado el momento de estudiar de forma definitiva la situación y cerrar una etapa concreta de Txirinbulo. Fruto de ese convencimiento y buscando el mayor consenso posible en el seno de la corporación municipal, hemos trabajado para que hoy estemos en el punto en el que nos encontramos, es decir, con los trabajos de construcción muy avanzados.

Las obras de construcción fueron adjudicadas a la empresa Arbeloa Construcciones, S.L. por 424.840 euros más IVA, como oferta más ventajosa desde un punto de vista económico para el Ayuntamiento. Hay que recordar que dentro de esta cuantía se encuentra la subvención de 250.000 euros otorgada por el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra en virtud de una enmienda parcial incluida en los Presupuestos Generales de Navarra del año 2016.

La cantidad restante proviene de la suma dineraria percibida por parte del seguro a raíz del incendió que calcinó las instalaciones modulares. La entidad aseguradora abonó 342.793,51 euros, de la cual se debe descontar la cantidad destinada a los gastos derivados del arreglo de los desperfectos en el colegio Zelandi y de la adecuación de la planta baja del edificio de Intxostiapunta, donde se presta este servicio de forma provisional.

La nueva Escuela Infantil contará con cuatro unidades, concretamente una unidad de lactantes, otra mixta, una tercera para niños y niñas de 1 a 2 años y una cuarta unidad destinada a niños y niñas de 2 a 3 años. Se incluye a su vez servicio de comedor.

Desde Geroa Bai consideramos que este Ayuntamiento tiene una deuda y una responsabilidad política y ética con nuestra Escuela Infantil municipal Txirinbulo. El digno trabajo que realiza el personal educador se debe ver acompañado por un lugar definitivo en el que desarrollarlo. Un lugar que dentro de poco será una realidad.

#INVERSIONES (2)
**Trabajo desde el acuerdo político para mejorar Altsasu**

#ACTUALIDAD (6)
**Nuevo parking público de vehículos entre Kale Txiki y San Juan**

# #INVERSIONES

## Trabajo desde el acuerdo político

El remanente para gastos generales tras las cuentas que el Ayuntamiento de Altsasu presentó correspondientes al ejercicio de 2015 es de **1.895.417,15€.** Conocido el remanente de tesorería, Geroa Bai presentó varias propuestas, a las cuales hay que añadir las presentadas por el resto de grupos políticos del Ayuntamiento. Todas ellas fueron debatidas en el seno de la Comisión conjunta de Hacienda y Urbanismo.

Estas son las propuestas de Geroa Bai, que todas fueron aceptadas: construcción de **56 nichos** en el cementerio municipal; ampliación y sustitución del **pavimento de una de las dos aceras de la Calle Urbasa** debido a su pésimo estado; **arreglo de caminos** (Mendizabalazpi y Otadia); **pavimentación de la zona de Pilotajauku** en el marco de diversos trabajos de pavimentación que se han desarrollado; **sustitución del adoquín en la Plaza Santo Cristo de Otadia**, debido al mal estado del adoquinado en dicho lugar; **eliminación de uno de los pasos elevados de la calle San Juan**, y arreglo de **parques infantiles**.



En este último punto queremos destacar que se han renovado los parques infantiles situados en la plaza Baratzako Bide (foto) y en zona de Otadia, dentro de un proceso de renovación que continuará con otros parques infantiles de Alsasua.

Junto a ello y mediante las propuestas de otros grupos se han acometido las siguientes inversiones: rehabilitación de la instalación de **energía solar en el edificio de las piscinas cubiertas**; instalación de **reductores de velocidad** en varios puntos del casco urbano; adecentamiento de la **fachada del frontón Burunda**; eliminación del paso de peatones elevado de la calle Gartzia Ximenez y creación de uno nuevo; **renovación de la barandilla situada en la Residencia de Ancianos** y colocación de una nueva en el tramo final de la calle Idertzagain; **renovación de las ventanas de la ludoteca y el Juzgado de Paz**; señalización de las principales zonas y edificios municipales, y **asfaltado de distintos puntos**: zona de Pilotajauku, aparcamiento C/Gipuzkoa, puente del vía interinstitutos, Larrainbide, zona de Ibarmusu, barrio de Beikolar, Camino de la Cava y polígono Ondarria.



**Ampliación y sustitución del pavimento de una de las dos aceras de C/Urbasa.**



**Imagen de los baños renovados del Colegio Público Zelandi (inversión contemplada en los Presupuestos de 2016).**



**Nuevo muro de cierre de la parte trasera del Ayuntamiento (inversión contemplada en los Presupuestos de 2016).**

### MÁS INICIATIVAS: INVERSIONES EN MONTES

**El arreglo de camino es una prioridad para Geroa Bai. Así junto al arreglo de las pistas de Otadia y Mendizabalazpi, se ha acometido el arreglo de las pistas forestales de Balankaleku, Asentu y Ulaiargoitz en el marco de los trabajos forestales contemplados de acuerdo al Plan Forestal de Alsasua 2014-2023. El coste asciende a 70.526,78€, cuantía que incluye los honorarios por la redacción del proyecto (esto último esta incluido en los presupuestos de 2016). Además:**

**- Se ha redactado una Ordenanza reguladora de las huertas municipales a través de un proceso participativo.**

**- Desbroces en los tramos Usolarrain-San Pedro y Ulaiar-Txiki.**

# #DESARROLLO ECONÓMICO

## Apuesta por el emprendimiento

En un momento en el que el desempleo afecta de forma inasumible a nuestro municipio, Geroa Bai marcó en las elecciones municipales de mayo de 2015 como una de sus principales iniciativas económicas el impulso y apoyo al emprendimiento como fuente de riqueza y bienestar.

Es por ello que en el seno de la Comisión de Desarrollo Económico, Comercio, Turismo y Empleo del Ayuntamiento se estudió la posibilidad de celebrar un Convenio de Colaboración con Cederna Garalur –entidad de la cual el Ayuntamiento de Altsasu es socio-, como asociación sin ánimo de lucro constituida en 1991 por entidades públicas y privadas de la montaña de Navarra con el objetivo de promover e impulsar el desarrollo económico y social en su ámbito territorial.

De esta forma a través del citado Convenio se cede el uso de un aula del edificio municipal del Gure Etxea para que personal de Cederna Garalur, previa cita concertada, pueda prestar un servicio de apoyo al emprendimiento los lunes de 09:00 a 15:00hs. Servicio que es gratuito al estar cofinanciado por el Servicio Navarro de Empleo y los Ayuntamientos asociados a Cederna Garalur.

Dentro del Plan Estratégico de Sakana 2020, cuya implementación es posible gracias al Convenio celebrado entre la Vicepresidencia de Desarrollo Económico del Gobierno de Navarra y la Mancomunidad de Sakana, se contempla en el marco del análisis DAFO (debilidades, amenazas, fortalezas y oportunidades), la falta de cultura emprendedora, tanto en lo que se refiere al intra-emprendimiento (dentro de una empresa) como al inter-emprendimiento (entre varias empresas), así como la débil articulación estable entre FP, entidades de desarrollo y el mundo empresarial donde la primera participe en proyectos de emprendimiento.

Así pues, ante esta debilidad se deben implementar tanto desde el ámbito mancomunado como el municipal todas aquellas medidas que ayuden a fomentar el trabajo por cuenta propia y el emprendimiento.

A través del Convenio de Colaboración con Cederna Garalur el Ayuntamiento de Altsasu/Alsasua hace una apuesta por la cultura del emprendimiento desde el convencimiento de que los inaceptables datos de desempleo que aún hoy padece nuestro municipio, son a su vez una oportunidad para explorar nuevas vías de desarrollo económico, entre las cuales se encuentra el emprendimiento.

## Trabajando por Sakana

**Siendo plenamente conscientes del mejorable estado en el que se encuentran los polígonos industriales ubicados en Alsasua, desde la Comisión de Desarrollo Económico se está trabajando en un proyecto para señalizar estos polígonos junto a la Agencia de Desarrollo Garapen.**

**Dicha señalización consistirá en determinar y denominar las calles de los polígonos, así como los números correspondientes a cada nave industrial, incluyendo todo ello –junto a los nombres de las empresas ubicadas- en un panel informativo que estará ubicado en cada polígono industrial, tanto en los dos de promoción pública (Ibarrea y Ondarrea) como en el polígono de promoción privada (Isasia).**

**Junto a lo anterior es importante subrayar el contacto continuo del Ayuntamiento con SODENA, con el objetivo trabajar conjuntamente en la atracción de empresas, así como en analizar salidas para las naves industriales que en estos momentos se encuentran sin actividad alguna debido al cierre de las empresas antes ahí ubicadas. Los resultados se empiezan a conocer y esperemos que en futuro vayamos conociendo más y mejores noticias.**

### PLAN DIRECTOR SMART CITIES

**Por otro lado, el Ayuntamiento de Alsasua aprobó en Pleno formar parte del Convenio para la contratación y seguimiento del Plan Director Smart Cities en Navarra, junto a los Ayuntamientos de Pamplona, Tudela, Estella, Tafalla, Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, Mancomunidad de Sakana y el Gobierno de Navarra.**

**Y es que, tal y como se indica en el propio Convenio, "el movimiento de Ciudades Inteligentes o Smart Cities se está desarrollando con gran velocidad y alcance tanto a nivel local, como estatal y global, y viene motivado por la voluntad de poner las nuevas tecnologías al servicio de la ciudadanía, también en su relación con las Administraciones públicas, con objeto de facilitar la vida de los habitantes de las ciudades, reducir costes tanto a las personas, como a las empresas y a la propia Administración, y apostar por las herramientas tecnológicas de progreso de forma ordenada, accesible, transparente y sostenible".**

## #OPINIÓN - IRITZIA

**` Altsasu', por Javi Ollo Martínez, alca**





Aprovecho la oportunidad que me brinda este Boletín para exponeros una reflexión más sosegada tras todo lo ocurrido desde el mes de octubre hasta la actualidad. Como sabéis durante la noche del 14 al 15 de octubre ocurrieron unos hechos violentos que el Ayuntamiento a través de una Declaración Institucional condenó, mostrando a su vez la solidaridad para con las personas heridas y afectadas, manifestando el malestar por la masiva presencia de la Guardia Civil durante el fin de semana de ferias tras los hechos ocurridos y rechazando de forma contundente la imagen que algunos medios de comunicación trasladaron de nuestro municipio durante aquellos primeros días.

Como alcalde manifesté mi profundo rechazo ante tales hechos pero señalé que me sorprendía que en estos hubieran participado cincuenta personas como ya en aquellas primeras horas se estaba apuntando públicamente. Se me tildó de cobarde y de plegarme a las consignas de no sé muy bien quién pero es lo que creía e intuía y el tiempo me ha dado la razón. Esta prudencia me costó insultos y finalmente una amenaza de muerte que puse en conocimiento de la Policía Foral en forma de denuncia.

Lo ocurrido con posterioridad a lo relatado hasta ahora sólo puede calificarse como algo bochornoso. Bochornoso el tratamiento mediático del caso; bochornoso y denunciable lo que le ha ocurrido al bar donde parece ser que empezó todo; bochornosa la imagen que se ha trasladado de Alsasua, la cual ha quedado a nivel exterior a la altura del betún; bochornosa la argumentación jurídica para remitir el caso a la Audiencia Nacional y por lo tanto sacarlo del Juzgado de Instrucción Nº 3 de Pamplona que fue donde comenzó la investigación; bochornosa la operación policial para detener a vecinos de Alsasua, siendo ello totalmente innecesario y siendo suficiente una mera citación judicial; y por supuesto, bochornoso que un caso que empezó a investigarse bajo la tipificación penal de delito de lesiones y atentado contra la autoridad, pase a ser investigado bajo la tipificación de delito de terrorismo al albur de un artículo 573 del Código Penal cuestionable y cuestionado por diferentes instancias y por prestigiosos juristas.

El Ayuntamiento de Alsasua en sesión plenaria reunida con carácter extraordinario y urgente el 16 de noviembre, manifestó a través de una Declaración Institucional apoyada por una amplísima mayoría, su hartazgo ante todo lo señalado con anterioridad. A raíz de unos hechos que lamentamos profundamente y que nunca debieron ocurrir, hemos sido testigos de un continuo sinsentido. Es por ello por lo que en dicha Declaración trasladamos nuestra solidaridad a todas las personas que se han visto afectadas por todo ello y agradecemos al conjunto del pueblo de Alsa-

## lde de Alsasua

sua la actitud ejemplar que ha mostrado y está mostrando.

Hacemos nuestro el sentir de las familias de las personas detenidas el lunes 14 de noviembre, familias que han dado un ejemplo de sosiego y templanza que quiero agradecer. Estas se sienten indefensas, desamparadas y muy preocupadas por el futuro de sus hijos e hijas ante el sobredimensionamiento de los hechos y ante la posibilidad de cumplimiento de penas desproporcionadas, al haberse calificado los hechos como acto terrorista en la Audiencia Nacional. Pedimos por ello amparo a todas las instituciones (tanto ejecutivas como legislativas y judiciales) navarras para que esos hechos sean instruidos en el Juzgado de Instrucción nº 3 de Pamplona, donde comenzó dicha instrucción y donde figura el informe de la Policía Foral, la que en su día se hizo cargo del caso y a la que consideramos competente en este tema. Aun desde el respeto a las decisiones judiciales, manifestamos nuestro desacuerdo con la calificación penal de los hechos en cuestión como delito de terrorismo. Así como con las detenciones y medidas cautelares practicadas, las cuales se consideran innecesarias.

Termino aludiendo nuevamente a la irreal y manipulada imagen que se ha trasladado de nuestro municipio, la cual nada tiene que ver con la realidad. Altsasu es un pueblo trabajador; un pueblo con historia; un pueblo con una cultura privilegiada; un pueblo diverso que sabe convivir en esa diversidad que concibe como una riqueza. Convivencia que queremos reforzar, con medidas como la propuesta de Plan de Paz y Convivencia presentada por Geroa Bai al resto de grupos políticos del Ayuntamiento y con la colaboración de la Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos del Gobierno de Navarra.

GORA ALTSASU!!!

¡¡¡VIVA ALSASUA!!!

**Lo ocurrido solo puede calificarse como bochornoso: el tratamiento mediático del caso, la imagen que se ha trasladado de Altsasu, la argumentación jurídica para remitir el caso a la Audiencia Nacional, la operación policial para detener a vecinos de Alsasua...**

**Hacemos nuestro el sentir de las familias de las personas detenidas el lunes 14 de noviembre, que han dado un ejemplo de sosiego y templanza que quiero agradecer, y pedimos amparo a todas las instituciones para que estos hechos se instruyan en Pamplona**

**Altsasu es un pueblo trabajador; un pueblo con historia; un pueblo con una cultura privilegiada; un pueblo diverso que sabe convivir en esa diversidad que concibe como una riqueza. Convivencia que queremos reforzar desde el Ayuntamiento**

## Nueva página web, más accesible e interactiva







**Te invitamos a que visites la nueva web de nuestro Ayuntamiento en la página www.alsasua.net. En ella encontrarás las últimas noticias y la agenda, además de poder contactar con el alcalde para transmitirle tus sugerencias.**

## #Actualidad

## Nuevo parking público de vehículos

El Ayuntamiento de Altsasu/Alsasua, con el objetivo de satisfacer una demanda general de la población y muy especialmente del pequeño comercio, ha acondicionado el terreno correspondiente a las parcelas 563 y 565 del polígono 4 como parking público de vehículos.

Y es que, a raíz de la demolición de un inmueble por parte de sus propietarios, el Ayuntamiento planteó a estos –ante la no construcción a corto ni medio plazo en el terreno quedado libre- la posibilidad de ceder su uso al Consistorio con el objetivo de acondicionarlo como parking.

La respuesta afirmativa de la parte propietaria quedó así plasmada en un Convenio entre esta y el Ayuntamiento en el que consta los trabajos de acondicionamiento que este último ha realizado y costeado para albergar en el terreno un parking público de vehículos, así como un periodo mínimo de cesión, que será de tres años con la posibilidad expresa de prórroga.

Las obras que ha realizado el Ayuntamiento consisten en establecer el sistema de conducción de aguas, asfaltado del terreno, colocación de cuatro farolas y pintado de los aparcamientos. El coste total es de 37.000€ más IVA.



El parking de vehículos, con 25 plazas de aparcamiento, contempla que una de ellas queda reservada y habilitada para personas minusválidas.

El acceso y salida del parking para vehículos será por la parte trasera, es decir, por Kale Txiki. A su vez, en la parte correspondiente a la calle San Juan la parte propietaria de las parcelas construirá un muro, habilitando un acceso para peatones al parking.

Finalmente queremos agradecer a la parte propietaria la accesibilidad que ha mostrado, así como la disponibilidad para llegar a un acuerdo.

## GUZTION NAFARROA-LA NAVARRA DE TODOS/AS

Guzti honengatik, nahi duen guztiari gonbitea luzatzen diogu gure herrigunea ezagutu eta bere kezka eta proposamenak helarazteko gure komunikabideetan.

Invitamos a todo aquel que los desee a que conozca nuestro Grupo Local/Herrigune y a que nos exponga sus preocupaciones, y sugerencias, a través de nuestros canales de comunicación:

Geroa Bai Alsasua-Altsasu @AltsasuGeroaBai www.geroabai.com altsasu@geroabai.com

# Udal haur eskola berria



Legegintzaldiko lehen aldi honetako mugarri garrantzitsuenaren aurrean gaude. Txirinbulo Udal Haur Eskola behin betiko kokatuko den eraikinaren gauzatzeak lan handia eduki du atzean, isilpean eta kontu handiz egina eta, nola ez, ilusio handiarekin ere. Begirada, gure Haur Eskolaren iraganean eta etorkizunean ere noski jarriz. 2015eko irailaren 3an moduluzko instalazioak kiskali zituen sutea inflexio puntua izan zen eta Geroa Baitik argi eduki genuen egoerari behin betiko konponbidea emateko modua ikertzeko garaia iritsi zela horrela Txirinbuloren aro bati amaiera emanez. Asmo horien fruitu eta udalbatzaren baitan ahalik eta adostasun handiena bilatuz, gaur egun gauden puntuan egoteko lanean aritu gara, hau da, eraikitze lanak ia amaiturik ditugun une honetan egoteko.

Eraikitze lanak Arbeloa Construcciones S.L. enpresak lortu zituen 424.840,00€ gehi BEZ-ren truke, Udalarentzat ikuspuntu ekonomikotik eskaintza abantailatsuena baitzen. Kontutan izan behar da zenbateko horren barruan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak emandako 250.000,00€-ko diru-laguntza dagoela, 2016ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu zen zuzenketa batek hala ezarri baitzuen. Gainontzekoa, moduluzko instalazioak kiskali zituen sutearen ondorioz, asegurutik jasotako diru kopuruari dagokio. Aseguru etxeak 342.793,51€ eman zituen, horietatik Zelandi ikastetxeko kalteak konpontzetik eta zerbitzua behin-behineko balditzetan ematen ari den Intxostiapunta eraikinaren behe solairuaren egokitzetik eratorritako gastuak kendu behar direlarik.

**Geroa Baitik uste dugu Udal honek Txirinbulo gure udal Haur Eskolarekin zor eta ardura politiko eta etikoa duela.**
**Hezitzaileek burutzen duten lan duina, hura garatzeko behin betiko toki batek lagundu behar du. Denbora gutxi barru errealitatea izango den toki bat.**

Haur Eskola berriak lau unitate izango ditu, zehazki bularreko haurren unitate bat, unitate misto bat, 1 eta 2 urte bitarteko haurrentzako hirugarren bat eta 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako laugarren bat. Jantoki zerbitzua egongo da gainera.

Geroa Baitik uste dugu Udal honek Txirinbulo gure udal Haur Eskolarekin zor eta ardura politiko eta etikoa duela. Hezitzaileek burutzen duten lan duina, hura garatzeko behin betiko toki batek lagundu behar du. Denbora gutxi barru errealitatea izango den toki bat.

#INBERTSIOAK (2)
**Altsasu hobetzeko akordio politikotik egindako lana**

#GAURKOTASUNA (6)
**Ibilgailuentzako aparkaleku publiko berria**

## #INBERTSIOAK

## Akordio politikotik egindako lana

Altsasuko Udalak aurkeztutako 2015 jardunaldiari dagozkion kontuen ondoren gastu orokorrentzako soberakina **1.895.417,15 €**-koa da. Altxortegi soberakina ezagututa, Geroa Baik ondoko proposamenak aurkeztu zituen, horiei Udalean dauden gainontzeko taldeek aurkeztutako zuzenketak gehituz. Horiek guztiak Ogasun eta Hirigintza Batzorde bateratuaren baitan eztabaidatu ziren.

Hauek dira Geroa Bairen proposamenak, guztiak onartuak: Udal hilerrian **56 horma-hobiren** eraikitzea; **Urbasa kalearen bi espaloietako baten handitzea eta zolagainaren aldatzea**, egoera penagarrian baitzegoen; **bideen konpontzea** (Mendizabalazpi eta Otadia); **Pilotajauku inguruen zolaketa**, burutu diren hainbat lanen baitan; **Otadiako Kristo Sainduaren Enparantzan galtzada-harrien aldatzea**, zoladura egoera txarrean baitago toki horretan; **San Juan kaleko gainbideetako bat kentzea** eta **haur parkeen konponketa**.

Azken puntu honetan nabarmendu beharra dago Baratzako Bide enparantzan (argazkia) eta Otadian kokatutako haur parkeak berritu direla, Altsasuko beste haur parkeekin jarraituko duen berritze prozesuaren baitan.



**Nabarmendu beharra dago Baratzako Bide enparantzan (argazkia) eta Otadian kokatutako haur parkeak berritu direla, Altsasuko beste haur parkeekin jarraituko duen berritze prozesuaren baitan.**

Horrekin batera eta beste taldeen proposamenen bidez ondoko inbertsioak burutu dira: Estalitako igerilekuen eraikineko **eguzki energia instalazioaren birgaitzea**; hiriguneko puntu ugaritan abiadura murriztaileen instalazioa; **Burunda frontoiaren fatxadaren egokitzea**; Gartzia Ximenez kaleko gainbidearen kentzea eta berri baten sortzea; **Zahar Egoitzako barandaren berritzea** eta Idertzagain kale amaierako tartean berri baten jartzea; **ludotekako eta Bake Epaitegiko leihoen zaharberritzea**; udaleko gune eta eraikin nagusien seinaleztatzea; eta **puntu ezberdinen asfaltatzea**: Pilotajauku inguruak, Gipuzkoa kaleko aparkalekua, institutu arteko bideko zubia, Larrainbide, Ibarmusu inguruak, Beikolar auzoa, Cava bidea eta Ondarria industrialdea.



**Urbasa kalearen bi espaloietako baten handitzea eta zolagainaren aldatzea.**



**Zelandi Ikastetxe Publikoko bainugela berrituen irudia (2016ko Aurrekontuetan ezarritako inbertsioa).**



**Udaletxe atzealdeko itxitura horma berria (2016ko Aurrekontuetan ezarritako inbertsioa).**

### EKIMEN GEHIAGO: MENDIETAN INBERTSIOAK

**Bidearen konponketa lehentasuna da Geroa Bairentzat. Horrela, Otadia eta Mendizabalazpiko pisten konpontzearekin batera, Balankaleku, Asentu eta Ulaiargoitz mendi-pisten konponketari ekin zaio 2014-2023 Altsasuko Mendi Planean ezartzen diren mendi lanen baitan. Horren kostua 70.526,78€-koa da, zenbateko horretan proiektuaren idazketaren ordainsaria barne dagoelarik (azken hau 2016ko Aurrekontuetan dago).**

**Gainera:**

- **Udal baratzen arautzerako Ordenantza bat idatzi da prozesu partehartzaile baten bitartez.**
- **Usolarrain-San Pedro eta Ulaiar-Txiki tarteetan sastraka kentzea.**

## #GARAPEN EKONOMIKOA

## Ekintzailetzaren aldeko apustua

Langabeziak gure udalerria modu onartezinean eragiten ari duen une honetan, Geroa Baik 2015eko maiatzeko udal hauteskundeetan bere ekimen ekonomiko nagusi moduan ekintzailetza bultzatzea eta babestea azpimarratu zuen aberastasun eta ongizate iturri moduan. Horregatik, Udaleko Garapen Ekonomiko, Merkataritza, Turismo eta Enplegu Batzordean Cederna Garalurekin Lankidetza Hitzarmen bat izenpetzeko aukera ikertu zen –erakunde horretan Altsasuko Udala kidea da-, Nafarroako mendialdeko erakunde publiko eta pribatuek 1991an sortu zuten onurarik gabeko elkartea baita hau, bere lurraldeko esparruan garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta bultzatzeko helburuarekin.




Modu honetan, esandako Hitzarmenaren bitartez, Gure Etxea udal eraikinaren ikasgelaren erabilera lagatzen da Cederna Garalureko langileek, aldez aurretik eskatutako hitzordu bidez, ekintzailetza laguntzeko zerbitzua emateko astelehenetan 9:00etatik 15:00etara. Zerbitzu hori doakoa da Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Cederna Garaluren dauden Udalek erdi bana finantzatzen dutelako.

Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzaren eta Sakanako Mankomunitatearen artean izenpetutako Hitzarmenak bere ezarpena ahalbidetzen duen Sakana 2020 Plan Estrategikoaren baitan, AMAS (ahultasunak, mehatxuak, aukerak eta sendotasunak) analisiaren markoan ekintzailetza-kultura eza ageri da, bai intra-ekintzailetzari dagokiona (enpresa baten barruan), bai eta inter-ekintzailetzari dagokiona ere (enpresa ugariren artean); gainera Lanbide-Heziketaren, garapen erakundeen eta enpresa munduaren arteko artikulazio egonkor urria ikusten da lehenak ekintzailetza proiektuetan parte hartzen duenari begiratuz.

Horrela, ahultasun honen aurrean, mankomunitate esparrutik bai eta udal esparrutik ere norbere konturako lana eta ekintzailetza sustatzea laguntzen duten neurriak ezartzeko beharra dago.

Cederna Garalurekin Lankidetza Hitzarmenaren bitartez Altsasuko Udalak ekintzailetza kulturaren aldeko apustua egin du, gure herriak oraindik pairatzen dituen langabezia datu onartezinak aldi berean garapen ekonomiko bide berriak ikertzeko aukera direla uste baitugu, eta horien artean ekintzailetza dago.

## Sakanaren alde lanean

**Altsasun kokaturik dauden industrialdeen egoera hobetu daitekeela argi dugun heinean, Garapen Ekonomikorako Batzordeak industrialde hauek seinaleztatzeko proiektu bat lantzen ari du 'Garapen' Garapenerako Agentziarekin batera. Seinaleztatze hori industrialdeetako kaleak zeintzuk diren eta izenak jartzean datza, bai eta industria-nabe bakoitzari dagokion zenbakia jartzean, hori guztia –kokaturiko enpresen izenekin batera- industrialde bakoitzean egongo den taula informatibo batean agertuz, bai sustapen publikokoetan (Ibarrea eta Ondarrea), bai eta sustapen pribatukoan (Isasia).**

**Aurrekoarekin batera, garrantzitsua da azpimarratzea Udalak SODENArekin duen etengabeko kontaktua, enpresak erakartzeko helburuarekin elkarlanean arituz, bai eta lehen bertan zeuden enpresen industria-nabe hutsei irtenbidea ematea analizatzeko ere. Horren emaitzak ikusten hasi dira eta espero dezagun etorkizunean berri on gehiago eta hobeak ezagutzea.**

### SMART CITIES PLAN ZUZENDARIA

**Altsasuko Udalak Nafarroan Smart Cities Plan Zuzendaria kontratatzeko eta horren segimendurako Hitzarmenean sartzea onartu zuen Udalbatzan, Iruñea, Tutera, Lizarra, Tafalla, Iruñerriko Mankomunitatea, Sakanako Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernuarekin batera.**

**Eta Hitzarmenean bertan azaltzen den moduan, "Smart Cities edo Hiri Adimentsuen mugimendua abiadura eta irismen handiarekin ari da garatzen bai tokiko mailan bai estatu mailan eta era globalean ere, eta teknologia berriak hiritarren esku jartzeko borondateak mugitzen du, bai eta Administrazio Publikoekin ere, hirietako bizilagunen bizitza errazteko helburuarekin, pertsonei bai eta enpresei eta Administraritzari berari ere kostuak murrizteko, eta aurrerapenerako tresna teknologikoen alde era ordenatuan, irisgarrian, gardentasunez eta modu jasangarrian eginez".**

# #OPINIÓN - IRITZIA

'Altsasu'. Javi Ollo Martínez,





Buletin honek ematen didan aukera aprobetxatzen dut urritik gaur eguneraino gertatutakoaren ondoren hausnarketa lasaiago bat egiteko. Dakizuen moduan, urriaren 14tik 15erako gauean gertakari bortitzak jazo ziren. Udalak Adierazpen Instituzional baten bitartez horiek gaitzetsiz, era berean zauritutako eta kaltetutako pertsonekin elkartasuna agertuz, gertatutakoaren ondoren azokaren asteburuan zehar Guardia Zibilaren presentzia masiboa zela eta ondoeza adieraziz eta lehen egun haietan zehar zenbait komunikabidek emandako gure udalerriaren irudia tinkotasunez gaitzetsiz.

Alkate moduan nire gaitzespen osoa adierazi nuen gertakari horien aurrean baina nire harridura agertu nuen ere gertakizunetan berrogeita hamar pertsona parte hartu zutenaren berria zela eta, lehen ordu horietan publikoki esaten ari zen moduan. Koldartzat jo ninduten bai eta ez dakit oso ongi noren kontsignetara heltzeari ere salatu baina hori zen uste nuena eta susmoa nuena, eta denborak arrazoia eman dit. Zuhurtzia horrek irainak ekarri zizkidan eta azkenik heriotza mehatxu bat ere, Foruzaintzaren esku jarriz azken hori salaketa moduan.

Orain arte kontatutakoaren ondoren gertatutakoa lotsagarria bezala jo daiteke bakarrik. Lotsagarria komunikabideek egindako kasuaren tratamendua; lotsagarria eta salagarria dena hasi zela dirudien tabernari gertatutakoa; lotsagarria zabaldu den Altsasuren irudia, kanpo mailan lokatzaren mailan geratu dena; lotsagarria kasua Entzutegi Nazionalera eramateko argudiaketa juridikoa, horrela Iruñeko 3. Instrukzio Auzitegitik ateraz, ikerketa hasi zen auzitegia alegia; lotsagarria Altsasuko bizilagunak atxilotzeko polizia operazioa, inolako beharrik ez zuena eta zitazio judiziala aski izanik; eta noski, lotsagarria zauri eta autoritatearen aurkako atentatu delitu moduan ikertzen hasi zen kasua terrorismo delitu moduan ikertzen hasi izana Kode Penalaren 573 artikuluaren arabera, hori eztabaidagarria izanik eta kolokan jarria instantzia eta izen handiko legelari ezberdinen aldetik.

Altsasuko Udalak, ez ohiko eta premiazko azaroaren 16ko udalbatzan, gehiengo zabal baten onartutako Adierazpen Instituzional baten bitartez aurretik adierazi den guztiaren aurrean bere haserrea adierazten du. Sakonki deitoratzen ditugun eta inoiz gertatu behar ez zuten gertakari batzuen ondorioz, etengabeko zentzugabekeria baten lekuko izan gara. Horregatik Adierazpen horretan gure elkartasuna agertzen diegu horregatik guztiagatik kalteturik suertatu diren pertsona guztiei eta Altsasuko herriari edukitako eta edukitzen ari duen jarrera eredugarria eskertzen diogu.

Azaroaren 14an atxilotutako pertsonen familien mina geure egiten dugu, familia horiek eskertu nahi dudan lasaitasun eta neurritasun eredua eman baitute. Hauek babesgabe sentitzen dute euren burua, defentsarik gabe eta haien seme-alaben etorkizuna

## Altsasuko alkatea

dela eta oso kezkaturik, gertatutakoen gehiegizko egoeraren aurrean eta neurrigabeko zigorrak betetzearen posibilitatearen aurrean, gertakizuna ekintza terrorista moduan jo baitute Entzutegi Nazionalean. Horregatik Nafarroako erakunde guztiei eskatzen diegu babesa (exekutiboei, legegileei, bai eta judizialei ere), gertakari horiek Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegian bideratu daitezen, instrukzio hori hasi zen tokian alegia eta Foruzaintzaren txostena dagoen tokian gainera, bere garaian hura izan baitzen kasuaren arduradun eta hura da gure iritziz gai honen gainean eskumena duena. Erabaki judizialekiko errespetutik, baina gure desadostasuna agertzen dugu gertakariak terrorismo delitu direla dioen kalifikazio penalarekin. Bai eta atxiloketekin eta ezarritako aurreikuspen neurriekin, beharrezkoak ez direla uste baitugu.

Amaituko dut berriro salatuz gure herriaren irudi irreal eta manipulatua hedatu dela, errealitatearekin ezer ikustekorik ez baitu. Altsasu herri langilea da; historia duen herria; kultura pribilegiatua duen herri bat; herri anitza eta aniztasun horretan bizikidetzan bizitzen dakiena, aberastasun moduan ulertzen baitu. Horrela frogatu genuen pasa den azaroaren 26an egindako manifestaldian, gure herriaren izena zeraman lelopean. Denok batzen gaituen leloa eta gure bizikidetzaren froga dena. Sendotu nahi dugun bizikidetza, hala nola Geroa Baik Udaleko gainontzeko taldeei aurkeztutako Bake eta Bizikidetzarako Plan proposamena bezalako neurrien bidez, eta Nafarroako Gobernuko Bake, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean.

GORA ALTSASU!!!
¡¡¡VIVA ALSASUA!!!

**Gertatutakoa lotsagarritzat jo daiteke bakarrik: kasuaren tratamendua komunikabideen aldetik, eman den Altsasuren irudia, kasua Entzutegi Nazionalera bidaltzeko argudiaketa juridikoa, Altsasuko bizilagunak atxilotzeko polizia operazioa...**

**Azaroaren 14an atxilotutako pertsonen familien mina geure egiten dugu, familia horiek eskertu nahi dudan lasaitasun eta neurritasun eredua eman baitute, eta gertakizun hauek Iruñean bideratu daitezen erakunde guztiei babesa eskatzen diegu.**

**Altsasu herri langilea da; historia duen herria; kultura pribilegiatua duen herri bat; herri anitza eta aniztasun horretan bizikidetzan bizitzen dakiena, aberastasun moduan ulertzen baitu. Udaletik sendotu nahi dugun bizikidetza.**

## Web orrialde berria, erabilerrazagoa eta interaktiboa





**Gure Udalaren web orrialde berria bisitatzera gonbidatzen zaitugu www.altsasu.net. Bertan azken berriak eta agenda aurkituko dituzu, bai eta zure gomendioak helarazteko alkatearekin kontaktuan jartzeko aukera izango duzu ere.**

## #GAURKOTASUNA

## Ibilgailuentzako aparkaleku publiko berria

Altsasuko Udalak herritarren eskaera orokorrari erantzuna emateko helburuarekin eta bereziki merkataritza txikiaren eskaerari erantzuna emateko, 4 poligonoko 563 eta 565 partzelei dagokion lursaila, ibilgailuentzako aparkaleku publiko moduan egokitu du. Honen jatorrian zera dago; bere jabeek eraikin bat eraitsi ondoren eta libre geratutako lursailean epe motz eta ertainera ezer eraikiko ez zela ikusita.

Udalak aparkaleku moduan egokitzeko, lursaila lagatzea planteatu zien jabeei. Jabeen baiezko erantzuna haien eta Udalaren arteko Hitzarmen batean gauzatu zen, lursailean ibilgailuentzako aparkaleku publiko bat egiteko kostuak Udalak ordaindu behar dituela ezarriz, bai eta lagatze gutxieneko epe bat, hiru urtekoa alegia, eta luzapen aukera espreski agertuz.

Udalak burututako lanak, uren hoditeria, lursailaren asfaltatzea, lau farolaren jartzea eta aparkalekuen margotzea izan dira. Kostu osoa 37.000€ gehi BEZ izan da.

Ibilgailuentzako aparkalekua, aparkatzeko 25 tokirekin, elbarrientzako erreserbatutako eta egokitutako toki bat gordetzen du.

Aparkalekutik ibilgailuen sarrera eta irteera atzeko aldetik izango da, Kale Txikitik alegia. Era berean, San Juan kaleko aldean, partzelen jabeek horma bat eraikiko dute, oinezkoak aparkalekura iristeko bide bat eginez.

Azkenik, jabeei agertu duten erraztasuna eskertu nahi diegu, bai eta akordioetara iristeko asmoa.



**Udalak burututako lanak, uren hoditeria, lursailaren asfaltatzea, lau farolaren jartzea eta aparkalekuen margotzea izan dira. Kostu osoa 37.000€ gehi BEZ izan da.**

## GUZTION NAFARROA-LA NAVARRA DE TODOS/AS

Guzti honengatik, nahi duen guztiari gonbitea luzatzen diogu gure herrigunea ezagutu eta bere kezka eta proposamenak helarazteko gure komunikabideetan.

Invitamos a todo aquel que los desee a que conozca nuestro Grupo Local/Herrigune y a que nos exponga sus preocupaciones, y sugerencias, a través de nuestros canales de comunicación:

Geroa Bai Alsasua-Altsasu | @AltsasuGeroaBai | www.geroabai.com | altsasu@geroabai.com